

PRENTSA OHARRA

ASLEk Europako Gizarte-Funtsaren plan bat aktibatu du Euskadin 218 enpresa berri eta 1.090 lanpostu sortzeko

- Bost urteko eta 2,6 milioi euroko programa hau Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du, UPV/EHUren, CCOOren, Gipuzkoako Bazkudearen eta Iraurgi Berritzen Urolako Garapen Agentziaren laguntzaz.
- Planak 10.000 pertsonarekin harremanetan jartzea aurreikusi du, iraupen luzeko langabetuen, gazte tituludun berrien, enpresa-birmoldaketen eta enpresa-ondoregotzen esparruetan enplegua sortzeko.
- Euskadiko lan-sozietateen kopurua % 33 gehituko litzateke, eta horien lanpostuak % 16,3.
- Hauxe da ASLEren Batzar Nagusian aztertuko diren gaietako bat, ostiral honetan, Gasteizko Artium Museoan.

BILBO, 2015eko Apirilaren 1ean. ASLE Euskadiko Lan-Sozietateen Elkarteak **218 enpresa berri eta 1.090 lanpostu sortzea ahalbidetuko duen bost urteko proiektu garrantzitsua** abiaraziko du aurrean. **Europako Gizarte Funtsaren** bitartez eta **Eusko Jaurlaritzaren** koordinaziopean, ASLEk garatu beharreko plan honek **2,6 milioi euroko** finantzaketa izango du, eta **UPV/EHU, CCOO** sindikatua, **Gipuzkoako Bazkudea** eta **Iraurgi Berritzen** Urolako Garapen Agentziaren laguntzaz gauzatuko da.

‘Lanzituz, Lan Sozietateak Sortuz’ izeneko proiektu honek, **bost urtetan** Euskadin dagoen lan-sozietateen kopurua **% 33raino igotzea** ahalbidetuko luke -orain dauden 659 sozietatetik 876ra igaroz-, era horretako enpresetako **enplegua % 16,3** gehituz -oraingo 6.648 lanpostuetatik 7.731ra-.

Planak langabetuak mobilizatzea xede duten zenbait ekintza abian jartzea aurreikusi du **ASLEren 2020rako plan estrategikoaren barruan**, “lan-sozietateen hazkundera eta **enpleguaren aldeko konpromisoa elkarrearen gizarte-erantzukizunarekin lotuz**”, Josetxo Hernández ASLEko gerenteak adierazi duenez.

Euskadiko Lan Sozietateen Elkartea Europako Gizarte Funtsaz baliatu da proiektuaren erdia finantzatzeko, baita Eusko Jaurlaritzaz ere, **tarteko eragile gisa**, eta hainbat erakunde laguntzailez, **langabetuak** lan-sozietateen **enpresa-ereduarekin harremanetan jartzeko**.

Planaren helburua, lan-sozietate berriak sortzea da, lau esparru hauen bitartez: **langabetutako pertsonak, gazte tituludun berriak, enpresa-birmoldaketak eta enpresa-ondorengotzak**. Horretarako, ASLEk **10.000 langabaturekin ere** harremanetan jartzea aurreikusi du, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun gehien duten kolektibo sozialen, emakumeen eta iraupen luzeko langabetuen artean. Gainera, ahalegin berezia egingo du 25 urtetik beherako gazteekin,



minusbaliotasuna duten pertonekin eta 54 urtetik gorakoekin, besteak beste. “Gipuzkoako Bazkundearen eta Iraurgiren bitartez, eta ASLEtik bertatik, arreta zuzena egingo diegu **ekintzaileei**; UPV/EHU eta Gezki Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuaren laguntzaz, **lan-politsetarako** sarbidea izango dugu, eta CCOOk **industria-birmoldaketez** baliatzen lagunduko digu”, zehaztu du Hernándezek.

Onurak

Aldi berean, lan-sozietateen ordezkari gisa 33 urteko esperientzia duen ASLE elkarteak lanpostuen sorrerarako eskaini nahi du enpresa-eredu hau, “**beste enpresa-ereduen aldean onura nabarmenak** dituen”. Gogoan izan behar da, enpresaren jabegoa langileen esku daukan lan-sozietate bat sortzeak “finantzaketa arloko abantailak dituela, beste era bateko merkataritza-sozietateekin alderatuta”, argitu du Hernándezek.

Beste hainbat onuraren artean, lan-sozietatean langile bazkide gisa sartzen diren pertonek **langabezi saria kapitaliza dezakete**, baita Soldata-Bermerako Funtsaren kalteordaina ere, kapital sozialaren ekarpena egiteko, eta aldi berean, **langabeziagatiko prestazioa ordainketa bakarrean jasotzeko** eskubidea dute, PFEZ ordaindu beharrik gabe.

Lan arloko asmo handiko proiektu hau da, ostiral honetan, apirilak 24, Gasteizko Artium Zentro-Museoan egingo den **ASLEren Urteko Batzar Nagusian** aztertuko diren gaietako bat. Irekiera-ekitaldian, **Angel Toña** Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak parte hartuko du, eta itxiera-ekitaldian, **Arantza Tapia** Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak.

Batzarrean, besteak beste, ASLEren arduradunek **2014ko ekitaldiko jardueraren** balantzea aurkeztuko dute, Euskadiko lan-sozietateek lortutako enpleguaren % 2,7ko hazkundera eta fakturazioaren % 3,2ko igoera barne.

Era berean, langileek enpresetako kapitalean parte hartzea errazteko iaz abiarazi zen **Lanpar arrisku-kapitaleko funtsaren** berri eman, eta akzioen transmisiorako bazkideen arteko ituna aintzakotzat hartzen duen hiru lurralde historikoetako **foru aldundien erregulazio berriaz** informatuko dute. ASLEk, **Euskalit-en** lankidetzaz, enpresen **kudeaketa hobetzeko** eskaintzen duen laguntza izango da beste aztergaietako bat.

Informazio gehiago eta elkarrizketak:

Manuel Romero – 657 70 11 36 mromero@mercuriomedias.es

Mercurio Media – 94 652 72 81 / 653 73 62 86

mercuriomedias@mercuriomedias.es

<http://www.mercuriomedias.es>